Xedapen Orokorrak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

1092

AGINDUA, 2011ko otsailaren 7koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Gernikako Barruti Judizialeko Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor eta Betearazpenekoa sortzeko dena.

Gizarteak Justizia Administrazioari arinago, kalitate handiagoarekin eta eraginkortasun gehiagorekin jarduteko egiten dion eskaerari erantzuteko, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak antolamendua berregituratu eta Bulego Judizial Berria sortu zuen. Bulego Judizial Berriak birmoldaketa instrumentala ekarri du, eta epaile eta epaitegien jarduera jurisdikzionalari euskarria eta laguntza eskaintzen die. Bi unitate-motaz osatuta dago: alde batetik, epaitegiei zuzeneko laguntza emateko unitate prozesalak daude eta, bestetik, zerbitzu erkide prozesalak. Lehendabizikoek zuzenean epaile eta magistratuei laguntzen diete dagozkien zereginak, organo judizialaren parte direnak, betetzeko. Bigarrengoak, aldiz, ez dira organo judizial zehatzetan txertatzen eta lege prozesalak aplikatzearen ondoriozko kudeaketa- eta jarduera-zeregin zentralizatuez arduratzen dira.

Botere Judizialaren Lege Organikoak, gainera, 436. eta 438. artikuluetan onartu egiten du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskumena duela Bulego Judizialaren dimentsioa eta antolamendua zehazteko nahiz Euskadiko barruti judizialetako zerbitzu erkide prozesalak diseinatu, sortu eta antolatzeko. Eskumen horiek baliatuz, Eusko Jaurlaritzak, Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2008ko uztailaren 29ko bilkuran, onetsi egin zuen Euskadiko Justizia Administrazioaren Bulego Judizial eta Fiskaletako Antolamendu Plana (2008-2010), Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren aldeko txostena jaso ondoren. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak, elkarrizketa sozialaren esparruan eta Bulego Judizial Berria ezartzeko prozesuaren baldintzak finkatzeko asmoz, martxoaren 6ko 38/2007 Dekretua onartu zuen eta berau, hain zuzen ere, berrikusi egin da abuztuaren 31ko 23/2010 Dekretuan. Dekretu horietako lehenengoan onartu zen Euskal Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren eta CCOO, CSI/CSIF, LAB eta UGT Sindikatuen arteko III. Akordioa, Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen lanbaldintzak arautzeko eta Bulego Judiziala eraberritzeko dena. Aipatutako bigarren Dekretuan, aldiz, abuztuaren 31ko 223/2010 Dekretuan, alegia, onartu zen Justizia eta Herri Administrazio Sailaren eta CCOO,

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

1092

ORDEN de 7 de febrero de 2011, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se crea el Servicio Común Procesal General y de Ejecución del Partido judicial de Gernika.

Con la finalidad de responder a la demanda social de contar con una Administración de Justicia que actúe con mayor agilidad, calidad y eficacia, la Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre, de modificación de la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial dispuso una nueva reestructuración organizativa de lo que se ha dado a conocer como Nueva Oficina Judicial, una remodelación de carácter instrumental que sirve de soporte y apoyo a la actividad jurisdiccional de jueces y tribunales y que descansa sobre dos tipos de unidades: las unidades procesales de apoyo directo a los órganos judiciales, que asisten directamente a jueces y magistrados y magistradas en el ejercicio de las funciones que les son propias y forman parte del órgano judicial, y los servicios comunes procesales, que no se integran en un órgano judicial concreto y asumen labores centralizadas de gestión y apoyo en actuaciones derivadas de la aplicación de las leyes procesales.

La Ley Orgánica del Poder Judicial reconoce igualmente en sus artículos 436 y 438 la competencia de la Administración General del País Vasco para determinar la dimensión y la organización de la Oficina judicial, así como para diseñar, crear y organizar los servicios comunes procesales de los Partidos judiciales de Euskadi. En el ejercicio de dichas competencias, el Gobierno Vasco en reunión de Consejo de Gobierno de 29 de julio de 2008 aprobó, con el informe previo favorable del Consejo General del Poder Judicial, el Plan Organizativo de las Oficinas Judiciales y Fiscales de la Administración de Justicia en Euskadi (2008-2010). Asimismo, el Gobierno Vasco, en el marco del diálogo social y con el objeto de establecer las condiciones en que se desarrolle el proceso de implantación de la Nueva Oficina Judicial, aprobó el Decreto 38/2007, de 6 de marzo, por el que se aprueba el III Acuerdo Regulador de las Condiciones de Trabajo del Personal Funcionario al servicio de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma de Euskadi y de Reforma de la Oficina Judicial entre el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco y las Organizaciones Sindicales CC.OO., CSI-CSIF, LAB y UGT, que ha sido revisado por el Decreto 223/2010, de 31 de agosto, por el que se aprueba el IV Acuerdo regulador de la

ELA, CSI-CSIF, LAB eta UGT sindikatuen arteko IV. Akordioa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko funtzionarioak Euskal Administrazio Orokorreko funtzionarioekin nola parekatu eta Bulego Judizial eta Fiskala ezartzea arautzen duena.

Euskadiko Justizia Administrazioaren Bulego Judizial eta Fiskaletako Antolamendu Planak hasiera batean hiru zerbitzu erkide prozesal-mota aurreikusten ditu: Prozedura Antolatzeko Zerbitzu Erkide Prozesala, Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor eta Betearazpenekoa eta Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra. Hala eta guztiz ere, arrazionaltasun-irizpideak aintzat hartuta eta barruti judizial bakoitzaren konplexutasuna eta dimentsioa kontuan hartuta, zerbitzu erkide prozesalen diseinua desberdina da barruti judizialen arabera. Gernikako barruti judizialaren kasuan, antolamenduplanak Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor eta Betearazpeneko bakarra jasotzen du, bi atalekin: Atal Orokorra eta Betearazpen Atala.

Botere Judizialaren Lege Organikoko 438. artikulua betez, idazkari judizial batek jardungo du zuzendari gisa zerbitzu erkide prozesal bakoitzean eta funtzionalki haren mende egongo dira zerbitzuko lanpostuetan lanean ari diren gainontzeko idazkari judizialak eta langileak.

Era berean, destinoa Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor eta Betearazpenekoan duten Justizia Administrazioko langileak Justizia Administrazioko langileen arloko eskumen transferituen ardura duen Eusko Jaurlaritzako zuzendariaren mende daude organikoki.

Idazkari Judizialen Kidegoaren Araudi Organikoa onartu zuen abenduaren 30eko 1608/2005 Errege Dekretuko 8. artikuluak ezartzen du idazkari judizialena dela langileak antolatu, kudeatu, ikuskatu eta zuzentzeko eskumena eta, zeregin horiek betetzeko, alderdi tekniko-prozesalei begira gobernu-idazkariak prozeduran jarduteko onartzen dituen protokoloak bete behar dituztela; protokolo horiek probintziako idazkari koordinatzaileak proposatuko ditu. Jarduera tekniko-prozesalen protokoloek, mota berbereko zerbitzu erkide prozesaletan homogeneotasunez jarduteko irizpide orokorrak ezartzen dituzte, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak horretarako onartzen dituen irizpide orokorrak aplikatuz. Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzak ezarritako zerbitzu erkide prozesalen diseinu eta antolamendura egokituko dira prozeduran jarduteko protokoloak, bai eta lanpostuen zerrendan lanpostu bakoitzari ezartzen zaizkion zereginetara ere.

equiparación del personal funcionario al servicio de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma de Euskadi con el personal funcionario de la Administración General Vasca y de implantación de la Oficina Judicial y Fiscal entre el Departamento de Justicia y Administración Pública y las organizaciones sindicales CC.OO., ELA, CSI/CSIF, LAB y UGT.

El Plan Organizativo de las Oficinas Judiciales y Fiscales de la Administración de Justicia en Euskadi prevé en principio tres tipos de servicios comunes procesales, a saber, el Servicio Común Procesal de Ordenación del Procedimiento, el Servicio Común Procesal de Ejecución y el Servicio Común Procesal General. Sin embargo, atendiendo a criterios de racionalidad y teniendo en cuenta la dimensión y la complejidad de cada uno de los Partidos judiciales, el diseño de los servicios comunes procesales difiere. En el caso del Partido judicial de Gernika, el Plan Organizativo contempla un único Servicio Común Procesal General y de Ejecución, con dos Secciones: una Sección General y una Sección de Ejecución.

De acuerdo con el artículo 438 de la Ley Orgánica del Poder Judicial, los Servicios Comunes Procesales estarán dirigidos por una o un Secretario Judicial, de quien dependerá funcionalmente el resto de los Secretarios o Secretarias judiciales y el personal destinado en los puestos de trabajo en que se ordene el servicio de que se trate.

Igualmente, el personal al servicio de la Administración de Justicia destinado en el Servicio Común Procesal General y de Ejecución depende orgánicamente del Director o Directora del Gobierno Vasco responsable de las competencias transferidas en materia de personal al servicio de la Administración de Justicia.

El Real Decreto 1608/2005, de 30 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento Orgánico del Cuerpo de Secretarios Judiciales en su artículo 8 establece que compete al secretariado judicial la organización, gestión, inspección y dirección del personal y que, para el ejercicio de estas funciones, deberán atenerse en los aspectos técnico-procesales a los protocolos de actuación en los aspectos técnico-procesales en el procedimiento que serán aprobados por la o el Secretario de Gobierno a propuesta del o de la Secretaria Coordinadora Provincial. Los protocolos de actuación técnico-procesales establecen criterios generales de actuación que aseguren una actuación homogénea de todos los servicios comunes procesales de la misma clase, aplicando los criterios generales de homogeneización que apruebe el Consejo General del Poder Judicial. En todo caso, los protocolos de actuación en el procedimiento se adaptarán al diseño y organización de los servicios comunes procesales establecidos por el Gobierno Vasco, así como a las funciones asignadas a cada uno de los puestos de trabajo en la relaciones de puestos de trabajo.

Organo judizialei zuzeneko laguntza emateko unitate prozesalei dagokienez, Botere Judizialaren Lege Organikoko 437. artikuluak aurreikusten du eratuta dauden epaitegi edo auzitegietako sala edo sekzio adina zuzeneko laguntza emateko unitate prozesal egongo direla eta prozeduran jarduteko protokoloen esparruan garatuko dela horien antolamendua, Idazkari Judizialen Kidegoaren Araudi Organikoko 8. artikuluak adierazitako eran.

Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor eta Betearazpenekoaren jardueretan euskararen erabilera sustatzeko helburuz, bultzatuko dira zerbitzu erkideak bi hizkuntza ofizialetan emateko lagungarriak diren ekimenak, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoko 435. artikuluari jarraituz eta 174/2010 Dekretua, ekainaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko hizkuntza-normalkuntzari buruzkoarekin bat etorriz.

Botere Judizialaren Lege Organikoko 435. artikuluarekin bat etorriz, Bulego Judizialak arintasuna, eraginkortasuna, efizientzia, lanaren arrazionalizazioa, kudeaketa arduratsua eta administrazioen arteko koordinazio eta lankidetza erabiliko ditu funtzionatzeko irizpidetzat, herritarrek hurbileko eta kalitatezko zerbitzua izan dezaten. Ondorioz, kalitatezko kudeaketa-sistema egituratua lortzeko funtsezkoa da Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor eta Betearazpenekoa goian adierazitako irizpideak kontuan hartuz antolatzea, irizpide horiek laguntzen baitute Bulego Judizialaren ezarpena eta Herritarrek Justiziaren aurrean dituzten Eskubideen Gutunetik eratorritako konpromisoak betetzea bezalako antolamendu-erreformak behar bezala gauzatzen. Beraz, Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor eta Betearazpenekoa antolatzeko garaian garrantzi handia emango zaio kalitatea kudeatzeko sistemaren aplikazioari. Sistema hori Bulego Judizialaren arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzak diseinatu eta koordinatuko du Bulego Judizial Berriaren ezarpenean inplikatuta dauden gainontzeko eragileekin eta batez ere idazkari judizialekin eta Justizia Administrazioko langileekin lankidetza estuan.

Bestalde, aipatutako 435. artikuluak ezartzen dituen jardun-irizpideak lortzen laguntzeko eta Jarduketa judizialen alderdi osagarriei buruzko 1/2005 Erregelamendua onartu zuen Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurak 2005eko irailaren 25ean hartutako Erabakiarekin nahiz bertako 106. artikuluarekin bat etorriz (zerbitzu komunak behar bezala koordinatzeko jarraipen-batzordeak eratzeko aukera aurreikusten du artikulu horrek), Koordinatu eta Hobetzeko Batzorde bat ezartzea komeni dela ikusi da. Kide hauek izango ditu batzorde horrek: epaile dekanoa, Bizkaiko idazkari koordinatzailea, Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor eta Betearazpenekoaren idazkari zuzendaria, Justizia Administrazioko langileen

En cuanto a las unidades procesales de apoyo directo a los órganos judiciales se refiere, cabe señalar que la Ley Orgánica del Poder Judicial prevé en su artículo 437 que existirán tantas unidades procesales de apoyo directo como Juzgados, o en su caso, Salas o Secciones de Tribunales estén creados y su organización también se desarrollará en el marco de los protocolos de actuación en el procedimiento tal y como se recoge en el artículo 8 del Reglamento Orgánico del Cuerpo de Secretarios Judiciales.

Con el fin de promover el uso del euskera en las actividades del Servicio Común Procesal se impulsarán iniciativas que faciliten la provisión de los servicios comunes en las dos lenguas cooficiales en el marco del artículo 435 de la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial y del Decreto 174/2010, de 29 de junio, de Normalización Lingüística de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

De acuerdo con el artículo 435 de la Ley Orgánica del Poder Judicial, la Oficina Judicial funcionará con criterios de agilidad, eficacia, eficiencia, racionalización del trabajo, responsabilidad por la gestión, coordinación y cooperación entre Administraciones, de manera que la ciudadanía obtenga un servicio próximo y de calidad. En consecuencia, se considera fundamental que la organización del Servicio Común Procesal General y de Ejecución observe los criterios arriba mencionados en el marco de un sistema estructurado de gestión de calidad que faciliten la consecución de una reforma organizativa del calado de la implantación de la Oficina Judicial y el cumplimiento de los compromisos derivados de la Carta de Derechos de la Ciudadanía ante la Justicia. Por lo tanto, en el ámbito de la organización del Servicio Común Procesal General y de Ejecución, se prestará una especial atención a la aplicación del sistema de gestión de calidad que diseñará y coordinará la Dirección del Gobierno Vasco competente en materia de Oficina judicial, en estrecha colaboración con los demás agentes implicados en la implantación de la Nueva Oficina Judicial, especialmente el secretariado judicial y el personal al servicio de la Administración de Justicia.

Asimismo, de cara a facilitar la consecución de los criterios de actuación del referido artículo 435 y en virtud del Acuerdo de 15 de septiembre de 2005, del Pleno del Consejo General del Poder Judicial, por el que se aprueba el Reglamento 1/2005, de los aspectos accesorios de las actuaciones judiciales, y de su artículo 106 que contempla la posibilidad de constituir comisiones de seguimiento para garantizar la adecuada coordinación de los servicios comunes, se considera oportuno establecer una Comisión de Coordinación y Mejora compuesta por la o el Juez Decano, la o el Secretario Coordinador de Gipuzkoa, la o el Secretario Director del Servicio Común Procesal General y de Ejecución, una representación del perso-

ordezkari bat eta Bulego Judizial eta Fiskalaren arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzaren ordezkari bat.

Bulego Judizial Berria hedatu eta ezartzeko egin beharreko lege-aldaketak egiten dituzten azaroaren 3ko 1/2009 Lege Organikoa eta azaroaren 3ko 13/2009 Legea onartu ondoren (lehenengoa Bulego Judizial Berria ezartzeko legeria prozesala erreformatzeko Legearen osagarria da eta Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen du eta bigarrenak Bulego Judizial Berria ezartzeko legeria prozesala erreformatzen du), Euskadiko Administrazio Orokorrari dagokio Antolamendu Planean barruti judizial bakoitzak proposatutako Zerbitzu Erkide Prozesalaren sorrera, bere egitura, antolamendu orokorra, martxan jarritako data eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduen pertsonalaren lanpostu-zerrenda agindu bidez onartzea, hala ezartzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren Bulego Judizial eta Fiskalen Antolamendu Planak.

Justizia Administrazioko langileen Lanpostuen Zerrendan, Gernikako Barruti Judizialeko langileei dagokienez, Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor eta Betearazpenekoaren lanpostuez gain zuzeneko laguntza emateko unitate prozesaletako lanpostuak ere azaltzen direnez, komenigarritzat jo da Lanpostuen Zerrenda bereiz onartzea eta dekretu baten bidez egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Lanpostuen Zerrenda onartzeko erabiltzen den tresna juridiko berbera erabiliz.

Azkenik, Euskadiko Justizia Administrazioaren Bulego Judizial eta Fiskaletako Antolamendu Planak aurreikusten du ebazpen bidez zehaztuko direla barruti judizial bakoitzeko antolamendu xehatua eta zerbitzu erkideen funtzionamenduko oinarrizko arauak.

Horiek horrela, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuarekin eta Euskadiko Justizia Administrazioaren Bulego Judizial eta Fiskaletako Antolamendu Planarekin bat etorriz, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak txostena egin ondoren, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Sala, Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritza eta erakunde sindikalak jakinaren gainean jarri ondoren, hauxe

nal al servicio de la Administración de Justicia y una representación de la Dirección del Gobierno Vasco competente en materia de Oficina Judicial y Fiscal.

Una vez aprobadas la Ley Orgánica 1/2009, de 3 de noviembre, complementaria de la Ley de reforma de la legislación procesal para la implantación de la nueva Oficina judicial, por la que se modifica la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio del Poder Judicial, y la Ley 13/2009, de 3 de noviembre, de reforma de la legislación procesal para la implantación de la nueva Oficina judicial que realizan las modificaciones legales precisas para el despliegue y la implantación de la Nueva Oficina Judicial, corresponde a la Administración General de Euskadi aprobar por Orden «la creación de los Servicios Comunes Procesales propuestos en el Plan Organizativo, por cada Partido judicial, comprensivos de su estructura, organización general, así como la fecha de entrada en funcionamiento y la relación de puestos de trabajo del personal al servicio de la administración de Justicia en Euskadi», tal y como se recoge en el Plan Organizativo de las Oficinas Judiciales y Fiscales de la Administración de Justicia en Euskadi.

Dado que la relación de puestos de trabajo del personal al servicio de la Administración de Justicia con relación al personal asignado al Partido judicial de Gernika se refiere no sólo a los puestos del Servicio Común Procesal General y de Ejecución sino también a los puestos de este personal en las unidades procesales de apoyo directo, se ha considerado oportuno aprobar separadamente la relación de puestos de trabajo y hacerlo a través de un Decreto, utilizando el mismo instrumento jurídico que para la aprobación de la relación de puestos de trabajo de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Por último, el Plan Organizativo de las Oficinas Judiciales y Fiscales de la Administración de Justicia en Euskadi prevé que por Resolución se determine la organización detallada en cada Partido judicial y las normas básicas de funcionamiento de los servicios comunes.

En su virtud, de conformidad con el Decreto 472/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública, así como con el Plan Organizativo de las Oficinas Judiciales y Fiscales de la Administración de Justicia en Euskadi, previo informe del Consejo General del Poder Judicial, e informada igualmente la Sala de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, la Fiscalía Superior de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Secretaría de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco y las Organizaciones Sindicales,

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Helburua.

Gernikako Barruti Judizialeko Zerbitzu Orokor Prozesal Erkide eta Betearazpenekoa sortzen da. Zerbitzu hau ez da organo judizial zehatz batean txertatzen, eta prozesu-legeak aplikatzeak eragiten dituen jarduerak kudeatu eta sostengatzeko lanak zentralizatzen ditu, organo judizialei, profesionalei eta Justizia Administrazioa erabiltzen duten herritarrei zerbitzu arin eta eraginkorragoa emateko.

2. artikulua.– Egitura.

1.– Gernikako Barruti Judizialeko Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor eta Betearazpenekoak bi atal ditu: Atal Orokorra eta Betearazpen Atala.

2.– Betearazpen Atalak, bere aldetik, bi talde ditu legedi aplikagarriaren arabera: Zibileko Betearazpen Taldea eta Zigor Arloko Betearazpen Taldea.

3. artikulua.– Zerbitzuen tipologia.

1.– Atal Orokorrak jardun-arlo hauetako zerbitzuak emango ditu:

a) Salari laguntza ematea.

b) Komunikazio- eta betearazpen-egintzak.

c) Espediente judizialen eta gordailatutako konbikzio-objektu eta -piezen Lurraldeko Artxiboa.

d) Erregistroa eta banaketa.

e) Herritarrei eta profesionalei informazioa eta arreta ematea.

f) Posta eta paketeria.

g) Erreprografia.

h) Guardia-zerbitzuari laguntza ematea.

i) Epaile dekanoari laguntza ematea.

j) Bideokonferentzia pasiboak kudeatzea.

k) Apud-acta ahalordeak egitea.

2.– Organo judizialek prozedura zibiletan eta falta-judizioetan ematen dituzten epai, auto eta dekretu irmoen betearazpen prozesalarekin zerikusia duten zerbitzuak emango ditu Betearazpen Atalak.

4. artikulua.– Antolamendua.

1.– Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor eta Betearazpenekoan idazkari judizialak egingo ditu zuzendari lanak.

2.– Idazkari koordinatzaileen proposamenak kontuan hartuta gobernu-idazkariak une bakoitzean jarduera-arlo bakoitzerako ezartzen duena errespetatu eta bete beharko du Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor eta Betearazpenekoaren antolamenduak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak onesten dituen homogeneizazio-irizpide orokorrak aplikatuz. Nola-

DISPONGO:

Artículo 1. – Objeto.

Se crea el Servicio Común Procesal General y de Ejecución del Partido Judicial de Gernika que, sin estar integrado en un órgano judicial concreto, asume labores centralizadas de gestión y apoyo en actuaciones derivadas de la aplicación de las leyes procesales, con el objeto de facilitar un servicio más ágil y eficaz tanto a órganos judiciales, a profesionales como a la ciudadanía usuaria de la Administración de Justicia.

Artículo 2.– Estructura.

1.– El Servicio Común Procesal General y de Ejecución del Partido Judicial de Gernika se estructura en dos Secciones: una Sección General y una Sección de Ejecución.

2.– La Sección de Ejecución se estructura, a su vez, en dos Equipos según la legislación aplicable: el Equipo Civil y el Equipo Penal.

Artículo 3.– Tipología de servicios.

1.– La Sección General prestará los servicios relacionados con las siguientes áreas de actuación:

a) Asistencia a Sala.

b) Actos de comunicación y de ejecución.

c) Archivo Territorial de expedientes judiciales y depósito de efectos y piezas de convicción.

d) Registro y Reparto.

e) Información y atención a la ciudadanía y profesionales.

f) Correo y paquetería.

g) Reprografía.

h) Asistencia al servicio de guardia.

i) Asistencia a la o al Juez Decano.

j) Gestión de videoconferencias pasivas.

k) Constitución de apoderamientos apud-acta.

2.– La Sección de Ejecución prestará los servicios relacionados con la ejecución procesal de las sentencias, autos y decretos firmes de los órganos judiciales en cualquier procedimiento civil, así como en los juicios de faltas.

Artículo 4.– Organización.

1.– El Servicio Común Procesal General y de Ejecución estará dirigido por un secretario o una secretaria judicial.

2.– La organización del Servicio Común Procesal General y de Ejecución deberá respetar y cumplir lo establecido en los protocolos de actuación que para cada área de actividad apruebe la Secretaria o el Secretario de Gobierno a propuesta de los Secretarios o Secretarias Coordinadoras, aplicando los criterios generales de homogeneización que apruebe el Consejo

nahi ere, Eusko Jaurlaritzak ezarritako zerbitzu erkide prozesalen diseinu eta antolamendura egokituko dira jarduteko protokoloak, bai eta Lanpostuen Zerrendan lanpostu bakoitzari ezartzen zaizkion eginkizunetara ere.

5. artikulua.– Langileen mendekotasun funtzional eta organikoa.

Destinoa Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor eta Betearazpenekoan duten Justizia Administrazioko langileak Zerbitzu Erkideko idazkari zuzendariaren mende daude funtzionalki, eta Justizia Administrazioko langileen arloko eskumen transferituen ardura duen Eusko Jaurlaritzako zuzendariaren mende organikoki.

6. artikulua.– Euskararen erabilera sustatzea.

1.– Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor eta Betearazpenekoaren jardueretan euskararen erabilera sustatuko da, zerbitzu erkideak bi hizkuntza koofizialetan ematen laguntzen duten ekimenen bidez.

2.– Bai herritarrek bai erabiltzaileak, euskaraz nahiz gaztelaniaz egiteko aukera izango dute Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor eta Betearazpenekoarekiko harremanetan. Bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkeztutako dokumentu guztiek erabateko balioa eta eraginkortasuna dute.

7. artikulua.– Kalitatea kudeatzeko sistema.

1.– Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor eta Betearazpenekoa kalitatea kudeatzeko sistemari lotuta egongo da. Sistema hori Bulego Judizialaren arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzak diseinatu eta koordinatuko du Bulego Judizial Berriaren ezarpenean inplikatuta dauden gainontzeko eragileekin eta batez ere idazkari judizialekin eta Justizia Administrazioko langileekin lankidetza estuan.

2.– Kalitatea kudeatzeko sistemak plangintza, helburuen betetze-mailaren neurketa, disfuntzioen analisia, eta neurri zuzentzaileak sustatuko ditu, Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor eta Betearazpenekoa etengabe hobetzen joan dadin.

8. artikulua.– Koordinatu eta Hobetzeko Batzordea.

1.– Koordinatu eta Hobetzeko Batzorde bat ezarri da. Kide hauez osatuta dago: epaile dekanoa, Bizkaiko idazkari koordinatzailea, Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor eta Betearazpenekoaren idazkari zuzendaria, Justizia Administrazioko langileen ordezkari bat eta Bulego Judizial eta Fiskalaren arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzaren ordezkari bat. Hauen helburua da Bulego Judizialean nagusiki inplikatuta dauden alderdien arteko jarduera koordinatua sustatzea, Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor eta Betearazpenekoaren etengabeko hobekuntza ekartzeko.

General del Poder Judicial. En todo caso, los protocolos de actuación se adaptarán al diseño y organización de los servicios comunes procesales establecidos por el Gobierno Vasco, así como a las funciones asignadas a cada uno de los puestos de trabajo en la relación de puestos de trabajo.

Artículo 5.– Dependencia funcional y orgánica del personal.

El personal al servicio de la Administración de Justicia destinado al Servicio Común Procesal General y de Ejecución depende funcionalmente del Secretario o Secretaria Judicial Directora del Servicio Común y orgánicamente del Director o Directora del Gobierno Vasco responsable de las competencias transferidas en materia de personal al servicio de la Administración de Justicia.

Artículo 6.– Promoción del uso del euskera.

1.– Se promoverá el uso del euskera en las actividades del Servicio Común Procesal a través de iniciativas que faciliten la provisión de los servicios comunes en las dos lenguas cooficiales.

2.– Las y los ciudadanos y usuarios que se dirijan al Servicio Común Procesal podrán hacerlo, oralmente o por escrito, tanto en euskera como en castellano. Los documentos presentados en cualquiera de estos idiomas oficiales tendrán plena validez y eficacia.

Artículo 7.– Sistema de Gestión de Calidad.

1.– La organización del Servicio Común Procesal General y de Ejecución estará sujeta a un sistema de gestión de calidad diseñado y coordinado por la Dirección del Gobierno Vasco competente en materia de Oficina judicial, en estrecha colaboración con los demás agentes implicados en la implantación de la Nueva Oficina Judicial, especialmente el secretariado judicial y el personal al servicio de la Administración de Justicia.

2.– El sistema de gestión de calidad promoverá la planificación, la medición del cumplimiento de objetivos, el análisis de las disfunciones y la adopción de medidas correctoras en beneficio de una mejora continua del Servicio Común Procesal General y de Ejecución.

Artículo 8.– Comisión de Coordinación y Mejora.

1.– Se establece una Comisión de Coordinación y Mejora compuesta por la o el Juez Decano, la o el Secretario Coordinador de Gipuzkoa, la o el Secretario Director del Servicio Común Procesal General y de Ejecución, una representación del personal al servicio de la Administración de Justicia y una representación de la Dirección del Gobierno Vasco competente en materia de Oficina Judicial y Fiscal, con el fin de promover una actuación coordinada entre las partes principalmente implicadas en la Oficina judicial, que redunde en la mejora continua del Servicio Común.

2.– Koordinatu eta Hobetzeko Batzordearen bileretan parte-hartzeak ez dakar diru-konpentsaziorik.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Bulego Judizial eta Fiskalaren arloko eskumenen ardura duen Eusko Jaurlaritzako zuzendariak emandako ebazpen baten bidez ezarriko dira Gernikako Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor eta Betearazpenekoaren antolamendu zehatza eta funtzionamendu-arauak.

Bigarrena.– Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor eta Betearazpenekoa funtzionatzen hasteko data zehatza Eusko Jaurlaritzako Bulego Judizial eta Fiskalaren alorrean ahalmena duen zuzendariaren ebazpenaren bidez ezarriko da, Gernikako Barruti Judizialaren langileak egokitzeko prozesua bukatu ondoren.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko otsailaren 7a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

2.– La participación en las reuniones de la Comisión de Coordinación y Mejora no genera compensación económica.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La organización detallada y las normas de funcionamiento del Servicio Común Procesal General y de Ejecución del Partido judicial de Gernika se determinarán por Resolución de la Directora o el Director del Gobierno Vasco competente en materia de Oficina judicial y fiscal.

Segunda.– La fecha concreta de entrada en funcionamiento del Servicio Común Procesal General y de Ejecución será fijada por Resolución de la Directora o Director del Gobierno Vasco competente en materia de Oficina judicial y fiscal, una vez finalizado el proceso de acoplamiento del personal del Partido judicial de Gernika.

Tercera.– La presente Orden entrará en vigor a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de febrero de 2011.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.